



**Arartekoaren 2016R-1211-16 Ebazpena, 2016ko abuztuaren 1ekoa. Horren bidez, Ondarroako Udalari mahaiak eta aulkiak instalatzeko baimen bat indargabetzeko aholkatu du jabari publikoaren okupazioa erregulatzen duen udal ordenantzaren aurkakoa izateagatik.**

### Aurrekariak

1. (...) andreak kexa jarri zuen erakunde honetan Ondarroako Udalak jardunik egin ez zuelako bete 2016/0382 zenbakidun Alkatetza Dekretua, ostalaritza establezimendu bati Harategia kalean, oinezkoentzako kalean, mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena eman ziolako.

Udal aparejadorearen txostenak baimena ukatzea proposatzen zuen, izan ere, udal ordenantzaren 11. artikulua ezartzen du mota horretako instalazioak jarri ahal izateko kalearen gutxieneko zabalera 6 metrokoa izan behar dela eta okupatu nahi den kalearen zabalera 4,22 metrokoa da soilik.

Pertsona horrek adierazi du, 2016/0361 Dekretuaren arabera, kale horretan mahaiak eta aulkiak ezartzeko baimenik eman ez bada ere, dagokien udal zerbitzuek ez dituztela beharrezko neurriak hartu baimendu gabeko erabilera ekiditeko.

2. Kexa hori ikusita, Arartekoak informazioak eskatu zion Ondarroako Udalari eta eskatu zion, haren erantzunean, azaldu zezan zergatik baimendu zion ostalaritza establezimendu horri mahaiak eta aulkiak jartzea, 2016ko ekainaren 24ko Alkatetza Dekretuaren arabera eskaera ukatu ostean. Ebazpenean azaldu denez, interes orokorrari erantzunez, baimena justifikatzen duten arrazoiak dira okupazioak irisgarritasun baldintzak betetzen dituela eta bizilagunei sor diezazkiekeen eragozpenak kontuan hartu dituela.

### Gogoetak

1. Erabilera publikoko terrazetan instalazioak arautzen dituen ordenantzaren 11. artikulua honakoa xedatzen du:

*"1. Horrelako instalazioak oinezkoentzako kale batean jarri ahal izateko derrigorrezkoa da sei (6) metroko kalea edo hortik gorako zabalera izatea, eta bi (2) metro zabal baino gehiago okupatu gabe laga behar da."*

Alkatetza Dekretuak ez du betetzen indarrean dagoen araubidea, bere udal ordenantzak xedatzen duena.





Udalerriek autonomia osoa dute ordenazioa eta udal interes publikoko gaiak kudeatzeko, ordenamendu juridikoaren esparruan (apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 9.1. artikulua) Besteak beste, espazio publikoetako elkarbizitza harremanen ordenaziorako eta kudeaketarako eskumenak xedatzen ditu (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.2. artikulua).

Hori hala izanik, gaia udalak dagokion ordenantzaren bidez egokien iruditu zaion forman arautu ondoren, udal erakundeak eta onura edo kaltea jasan duten pertsonak araua bete eta betearazteko eginbeharra dute. Aipatutako betebeharrak eta erantzukizunekin batera, herri horretako herritarrek eskubidea dute gai publikoetan parte hartzeko eta udal araubidea bete dadin eskatzeko, legeetan eta ordenantza edo araubideetan ezartzen denaren arabera (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 43 eta 44. artikulua).

Testuinguru horretan, alkateak ez du indarrean dagoen ordenantzan aldaketarik egiteko eskumenik, espazio publikoa arautzen duen arau horren eskumena Udal osoarena delako eta, gainera, publikoki argitaratzeko izapideari lotuta dagoelako, herritarrek ordenantza horren sorreran parte hartzeko aukera izan dezaten.

Azken finean, sei metro baino gutxiagoko zabalera duen kalean espazio publikoa mahai eta aulkiekin okupatzeko baimena eman duen Alkatetza-Dekretua indargabe gelditu behar da, erabilera publikoko terrazak jartzea arautzen duen ordenantza urratzen duelako.

2. Testuinguru orokorrako batean, Ondarroako alkatearen jardunak, erakunde honen ustez, urratu egiten ditu Administrazioaren jardunbidearen oinarri izan behar dutenak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (HAA-JAPE) ezarritakoak. Bertan esaten da administrazio-jardun oro Legearen eta Zuzenbidearen baitan egin behar dela eta fede onaren eta legezko konfiantzaren oinarriak bete behar dituela. Printzipio hori kexaren edukiari aplikatuz gero, legezko konfiantzak adierazi nahi du indarrean dauden espazio publikoaren elkarbizitza arauak ez direla arbitrarioki aldatuko.
3. Ondarroako udalak, ordenantzan aldaketak egiteko eskumena du, legeetan jasotakoaren arabera, egoki iruditzen zaion zentzuan eta legeak ezartzen duenaren arabera.

Hori bat, ordenantza aldatzeko beharra ikusiko balu, erakunde honek egindako hausnarketa helarazi nahi lioke, espazio publikoaren erabilera pribatiboak bestelako eskubide eta interesekin izan dezakeen talkaren inguruan.





Hala, Arartekoaren iritziz, gai berberaren inguruko gomendioetan azaldu den bezala, Udalek izugarrizko ahalegin inbertsorea egin dute pertsonentzako kalitatezko espazio publikoak hobetu eta berreskuratzeko. Horrela, beste neurri batzuen artean, hauek aipa ditzakegu: urbanizazioak eraberritzea oinezkoen ibilbideen irisgarritasuna hobetuta; oinezkoen mugikortasuna sustatzeko espaloiak zabaltzea; hiriko altzariak hobetzea; hiriko erdiguneko eremuak oinezkoentzat jartzea eta abar.

Hala ere, oinezkoentzako espazioa irabazteari bideratutako neurri publiko horiek guztiak, mugikortasun jasangarria sustatzeko politiken baitan kokatu beharrekoak, kontraesanen sartzen dira, antza, terrazak eta mahaitxoak ugaritzearekin (beste elementu eta instalazioen artean); izan ere, berreskuratutako espazio publiko berriak inbaditzen dituzte terrazek, pertsona guztiek erabilera komun orokorra egitea mugatuz hein handi batean, oztopatuz ez bada.

Gainera, baimen horiek kalte handia ekartzen diete alboko auzokideei. Udal administrazioak neurriak hartu behar ditu kalte negatibo horien aurrean, kanpoan egiten diren jarduera horiek modu nabarmenean eragiten dituzten eragozpenak murrizte aldera. Zentzu horretan eta gutxienez, modu zuzenenean eragindakoek aurkezten dituzten demanden aurrean sentikorrek eta proaktiboak izateaz gain, udalak eraginkorra izan behar du espazio publikoa okupatzeko ezarritako baldintzak zorrotz betetzeko eskatzeko orduan, ikuskaritza- eta kontrol-neurri egokiak ezarriz, dagokion zigortzeko espedientea izapidetzea barne hartuta, urraketa gertatu den kasuetan. Hori guztia, udalaren erregulazioan bertan ezarritakoari jarraiki.

Terrazak eta mahaitxoak hiriko paisaiaren zati dira, bai eta ostalaritzako zerbitzuak emateari lotutako elementua ere, eta aisialdiko instalazio horien ohiko erabiltzaileek ateratzen diete onura. Hala ere, udalek ezin dezakete ahaztu herritar guztienak diren espazioen erabilera pribatiborako baimenak direla, irabazi-asmoa dutenak.

Laburbilduz, kontu hori jorrazteko unean, ezin daiteke espazio publikoaren izaerari buruzko multzo ikuspegia alboratu, ez eta erabilera komuna baztertzeko duten terrazak erasana ere, bereziki aipatuz bai alboko auzotarrak, bai baimendutako erabilera pribatiboa ostalaritzako irabazi-asmoko zerbitzuak emateari lotuta dagoela.

Hausnarketa horren ildo beretik, Euskadiko Herri Erakundearen 2/2016 Lege berriak herri bateko herritarren eskubide eta betebeharrak xedatzen ditu, besteak beste, espazio publikoko herritarren elkarbizitzari dagokionez eta gainontzeko pertsonen eskubideak errespetatzeari dagokionez, bai eta udal ondarearen erabilera arrazionalaren eta egokiaren inguruan. Era berean, herriaren arautzeko gaitasuna eta *"espazio publikoa zaintzea, bizikidetzaharremanak eta zerbitzu publiko jakin batzuk ematea"* xede duten politika publikoak jakinarazi behar dituzten printzipioak osatzen dira.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

Egin beharreko lege izapideak egin ostean, Harategi kaleko ostalaritza establezimenduan mahaiak eta aulkiak jartzea baimentzen duen 2016/0646 Dekretua indar gabe laga dezan eta aipatutako espazio hori erabilera orokorrerako laga dezan.

